

AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA ERABAKITZEN DUENA.

Klima-aldaketa eta haren ondorioak dira gizon-emakume guztiok inoiz izan dugun erronkarik garrantzitsuena eta konplexuena. Izan ere, berotze globala lehentasunezko kontua da, ingurumenean ez ezik, zenbait eremutan ere eragina baitauka, hala nola biodibertsitatearen eta natura-ondarearen kontserbazioan, eredu ekonomikoan, mugikortasunean, ura eta baliabide naturalak lortzean, merkataritzan, elikaduran, lurralde-antolamenduan, azpiegituretan eta osasunean.

Haren aurrean premiazko erronka dugu: alde batetik, eredu energetikoa eta produktiboa sakonki eraldatu behar da; eta, bestetik, egun jada bizi ari garen eraldaketak aurreikusi behar dira, eta haietara egokitu beharra dago. Ezinbestez zeharkako politika da aldaketa klimatikoaren aurkako borroka, eta maila guztietako administrazio, eragile ekonomiko eta sozial guztiek, baita herritarrek beraiek ere, hitzartu beharrekoa (tokiko, eskualdeko eta munduko mailaz ari gara).

Europar Batasuna bereziki aritu da aitzindari munduko jokalekuan klima-aldaketari dagokionez, eta negutegi-efektuko gasak progresiboki murriztera zuzendutako neurriak eta helburu jakin batzuk hartu ditu 2050. urteari begira. Hala, Europa eraldatzeko ibilbidea ezarri du, bertoko ekonomiak 2050erako oso karbono gutxi erabil dezan. Horretarako, bere lurralde osoan isurketak murrizteko helburuak ezarri ditu: % 40, 2030rako; eta % 80, 2050erako (industrializazio aurretiko 1990eko mailarekin alderatuta).

Gure lurraldeak dituen arriskuez eta hura mehatxatzen duten inpaktuez jabeturik, Euskadik bere egin du erantzukizun partekatuaren printzipioa, ingurumenari buruzko nazioarteko politikak zuzentzen dituen.

Lege honen bidez lidergo hori indartu nahi da, epe luzerako gobernantza- eta jarduera-esparru bat ezarriz, ekonomia aldatu dadin, karbonoaren erabilpenari dagokionez neutroa eta klimari egokitu bilakatu arte.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak jasotako preskripzioetara egokituko da lege-proiektu hau egiteko eta izapidetzeko prozedura.

Aipaturiko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezartzen du, 4.1. artikuluan, aurreikusitako arauzko xedapenen gaiaren gaineko eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez hasiko dela prozedura.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak dauka aipaturiko prozedurari egiteko eskumena, halaxe xedatzen baitu Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko, eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Dekretua).

Horren arabera, eta prozedura hasteko aginduan jaso beharreko edukia zehazten duen abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1CEZ-TDV9 bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1CEZ-TDV9 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Donostia 1. Tel: 945 01 96 54 Fax: 945 01 98 56 – 01010 Vitoria-Gasteiz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Agindua ematea Klima-aldaketari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen Aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Bigarrena.- Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza izendatzea hura izapidetzeko Zerbitzu Zuzendaritzarekin lankidetzan.

Hirugarrena.- Proiektua agindu honen eranskinean jasotako premisen arabera egingo da, abenduaren 22ko 8/2003 Legean aurreikusitako moduan (xedapen orokorrak egiteko prozedurarena).

Laugarrena.- Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakiari jarraikiz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikuluan ezarritako aurretiko kontsultaren izapidea egitea, egoitza elektronikoa (LEGEGUNEA eta Irekia).

Vitoria-Gasteiz

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua

Izpta. IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ
(elektronikoki sinatuta)

Eranskina. Klima-aldaketari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen aurreproiektua egiteko bete beharrekoak.

1.- Arauaren helburua eta xedea.

Lege honen helburua da aldaketa klimatikoa murriztea eta hartara egokitzeko neurriak arautzea, karbono gutxi erabiltzen duen ekonomia lortzeko bidean aurrera eginez, garapen iraunkorraren bidez; ondorio horietarako, helburu hauek ditu:

1. Negutegi-efektuko gasen isurketak murrizteko helburuak ezartzea, bai eta horretarako hartu beharreko neurriak ere, eta CO₂ko hustulekuen edukiera handitzea.
2. Efizientzia energetikoaren helburuak ezartzea, eta energia berriztagarriak progresiboki ezartzea, energia-eredu iraunkorra lortzea sustatzeko.
3. Isurketak gutxitzeko helburuak ezartzea, bai eta estrategia sektorialak eta haiei dagozkien ekintza-planak egokitzekoak ere.
4. Euskadi klima-aldaketara egokitzen aurrera egitea, arriskua kudeatuz eta erresilientzia hobetuz, egokitzapen hori sektore- eta lurralde-planifikazioan integratzearen bitartez.
5. Gobernantza-eremu bat definitzea, eragileekin hitzartutako ekintzan efikazia bermatzera zuzendua.
6. Arau-esparrua definitzea, klima-aldaketaren aurkako borroka eragindako politika publiko garrantzitsuenetan eta gizarte osoaren jardueretan sartzeko.
7. Mekanismoak eta tresnak ezartzea, klima-aldaketari, haren egoerei eta inpaktuei buruzko kalitatezko informazioaz hornitzeko.

2.- Bideragarritasun juridiko eta materiala baloratzea

1. Bideragarritasun juridikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11.1 a) artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena dauka ingurumen- eta ekologia-gaietan Estatuko oinarrizko legeria garatzeko eta oinarrizko legeria hori autonomia-erkidegoaren lurraldean betearazteko.

Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikulua arabera, autonomia-erkidegoko erakunde erkideen eskumena da Estatutuaren arabera autonomia-erkidegoari dagozkion gaiei buruz legeak egitea eta betearaztea, baldin eta estatutu horretan bertan edo haren ondorengo beste lege batzuetan lurralde historikoetako foru-organoei ez bazaizkie aitortzen edo esleitzen. Nolanahi ere, artikulua horretan gehitzen denez, Legebiltzarrak baino ez du izango lege-mailako arauak emateko eskumena.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremanen gaineko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua arabera, lurralde historikoetako foru-organoei dagokie erakunde erkideen natura-gune babestuen administrazioari buruzko legeak betearaztea.

Azaldutako arauen arabera, eta aintzat hartuz zer gai arautuko duen lege berriak, hau da, klima-aldaketa, zeina egiten hasteko agintzen baita agindu honen bidez, autonomia-erkidegoko erakunde erkideen eskumena da Legebiltzarraren bidez Klima-aldaketari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea onartzea.

2015eko ekainean onartu zen, Jaurlaritzaren Kontseiluan, Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia, KLIMA 2050. Zeharkako tresna da, Eusko Jaurlaritzako sail guztiena, eta beste ekonomia-eredu bat, karbono gutxi erabiltzen duen eta ondorio klimatikoei egokitzen dena, lortzeko ibilbidean aurrera egiteko hiru lurralde historikoetan eta haien udalerrietan bultzatzen diren politikekin lotua.

2016ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak bat egin zuen Klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioarekin, bai eta garai iraunkorreko helburuekin lotuta nazioarteko komunitateak hartutako konpromiso guztiekin ere; halaxe ibilbide-orri baten moduko bat ezarri zuen, klimarekin zerikusia duten neurrietarako, isurketak leuntzeko edo murrizteko, eta egokitzeko klima-aldaketarekiko erresilente izateko gaitasuna gauzatzuz.

Horren ondorioz, behar bezala justifikatuta geratzen da arau berri bat egiteko beharra, eremu juridiko gaurkotua ezartzeko, eta autonomia-erkidego honen eremuan klima-aldaketari dagokionez dauden funtsezko kontuei ekiteko.

2. Bideragarritasun materiala

Klima-aldaketa arautu nahi da lege-aurreproiektuarekin, adierazi den bezala.

Arau berrian hau guztia jasoko da: EAEko klima-aldaketari buruzko politika zuzendu behar duten printzipioak; pertsonen eskubideak eta betebeharrak; administrazio publiko bakoitzari dagozkion eskumenak eta haien arteko koordinazio-mekanismoak eskumen horiek betearazteko; informazioa jasotzeko, kontu publikoetan parte hartzeko eta ingurumen-justizia eskuratzeko eskubideak erabat baliatu ahal izatea bermatzea.

3.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina

Lege-aurreproiektuak lehen aldiz arautuko du gai hau. Hortaz, ez da aurreikusten ondoriozko izango duenik ordenamendu juridikoan, hura sortzeak ekar ditzakeenak gorabehera.. .

Lege-aurreproiektuaren helburua kontuan izanik, pentsatzekoa da gerora legea garatzeko erregelamendu-arauak onartu beharko direla.

4.- Proiektatutako arauaren eragina aurrekontuetan.

Azaroaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluekin bat etorriz, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, zeinak aztertuko baitu egitekoa den araua aplikatzearen ondoriozko kostua zein izango den eta hori aplikatzeak EAEko Aurrekontu Orokorretan zer nolako eragina izango duen. Orobat, arauak beste administrazio batzuetan eta partikular batzuegan izango duen inpaktuaren analisia ere sartuko da memoria horretan.

Memoriak, orobat, erantzun beharko dio arauak ekonomian orokorrean izango duen inpaktuari buruz egin beharreko azterketari, abenduaren 9ko 20/2013 Legean ekainaren 28ko 16/2012 Legean ezarritakoaren arabera (merkatuaren batasuna bermatzekoa eta ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, hurrenez hurren: 2013ko abenduaren 10eko BOEn eta 2012ko uztailaren 6ko EHAAn argitaratuak).

Zehapen-araubidea ere aurreikusten da, hauste administratiboen motak jaso eta zigor ekonomikoak ekarriko duena, hau da, diru-sarrerak jasoko dira, eta haiek ere kontuan hartu beharko dira.

5.- Beharrezko izapideak eta txostenak

Arau-xedapenaren testua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzeko eskatuko diren kontsulten eta txostenen emaitzak ere.

- ✓ Administrazio honetako gainerako sailei eta Jaurlaritzako eragile juridikoei jakinaraziko zaie araugintza-ekimen hau. Horretarako, LEGESAREA lankidetzarako eremuan sartuko da prozedurari hasiera emateko agindu hau.
- ✓ Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari eskatu zaio Lege Aurreproiektuaren testua idazteko. Araubide onaren printzipioak hartu beharko dira hura idazterakoan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 8/2003 Legearen 6. artikulua) Errespetatu beharko dira, orobat, 27/2006 Legearen 16. artikulutik eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 5. artikulutik ondorioztatzen diren betebeharrak, artikulua horietan ezartzen baita, hurrenez hurren, ingurumen-arauden lanketan interesa duen publikoaren partaidetza errealak eta efektiboak bermatu behar dela eta udalerriek aktiboki parte hartu behar dutela beren eskumenetan zuzenean eragiten duten autonomia-arauek egiten, besteak beste, ingurumenaren defentsari eta garapen iraunkorrari dagozkionak.
- ✓ Aurreproiektua Gobernuaren 2013ko maiatzaren 14ko erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da, haren bidez onartzen baitira xedapen orokorrak ele bietan egiteko neurriak, xedapenok lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma dutela ere.
- ✓ Arau-proposamenarekin batera, memoria hauek aurkeztuko dira: justifikatzekoa eta ekonomikoa; azken horretan arauak enpresen eraketan, abiapuntuan eta funtzionamenduan duen inpaktuaren ebaluazioa ere sartu behar da.
- ✓ Aurreproiektua idazten den bitartean, aldi berean, generoaren arabera inpaktuaren txostena egingo da, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartutako erabakiaren arabera, zeinaren bidez "genero-eragina aurretiaz ebaluatu eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen diren".
- ✓ Behin lege-aurreproiektua idatzi eta gero, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren alde aurreko onarpena jaso beharko du.
- ✓ Ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1. artikulua arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak aldatuta, xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da.
- ✓ Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, Legesarea lankidetzarako eremuan emango dira argitara.
- ✓ Lege-aurreproiektua foru aldundiei eta Autonomia Erkidegoko udalei aurkeztuko zaie entzunaldiaren izapidea egin dezaten, zuzenean edo EUDELen bidez.
- ✓ Horrez gain, herritarrek parte hartzeko fase bat irekiko da, informazio publikoa barne hartuko duena, eta, halaber, kontsulta-fase bat, ingurumen arloko

informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 23. artikulua araberan interesdun diren pertsona juridikoentzat.

Prozedura izapidetzean, nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

- a) Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren txostena.
- b) Emakunderen txostena.
- c) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Herri Administrazioen Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendaritzarena.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordearena.
- e) Ingurumenerako Aholku Kontseiluarena
- f) Naturzaintzarena
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluarena.
- h) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena.
- i) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.
- j) Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.
- k) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikorako Bulegoarena.
- l) Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

6.- Proposatutako erregulazioaren edukia

Arauk, gutxienez, honako hauek erregulatuko ditu:

- a) Legearen xedea eta helburua.
- b) Eskumen- eta antolamendu-araubidea.
- c) EAEko planifikazioa klima-aldaketari dagokionez.
- d) Klima-aldaketa sektore- eta lurralde-politiketan sartzea.
- e) Berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko tresnak, eta klima-aldaketara egokitzeak.
- f) Ikuskaritza eta zehapen-araubidea.

7.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Ez da proiektuaren inguruko izapiderik egin beharrik izango Europar Batasunean. Izan ere, horren helburua ez da Zuzendarauen transposizioa egitea, eta ez dio eragiten estatu kideen arteko lehiari. Diru-laguntzen programarik edo deialdirik ere ez du jasotzen.

8.- Araugintza-testua bi hizkuntzetan idazteko metodoa.

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legeak (azaroaren 24ko 10/1982 Legeak) 8.1. artikuluan xedatzen duena betetzeko, honako sistema hau erabiliko da: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena, arau-testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioan.